



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2012ko EKAINAREN 14ean EGINDAKO EZ-OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2012ko ekainaren 14ean, Alkizako Udaletxean, eguerdiko 13.00etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Ainara Sarasola Arsuaga
Uxue Etxebeste Eizagirre
Koldobika Jauregi Zinkunegi.
Ainara Zurutuza Ilundain

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Alkizako Herri Ostatuaren errentamentu eta ustiapenaren behin-behineko esleipena, hala bada**

.../...

LEHENENGO PUNTUA
**ALKIZAKO HERRI OSTATUAREN ERRENTAMENTU ETA USTIAPENAREN
ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2012ko maiatzaren 23an egindako Udalbatzarrean, Alkizako herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena, publizidade gabeko lehiaketa negoziatu bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onarpena eman zitzaiola eta publizidade gabeko lehiaketa negoziatu deialdia onestu zela.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik 2012ko maiatzaren 23an jendaurrean jarri zela Alkizako herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena, publizidade gabeko lehiaketa negoziaturako deialdia, non interesatuek, zazpi eguneko epean, euren izenak Alkizako Udalean eman behar zituzten.

Ikusirik, goian aipaturiko epean hiru interesatu aurkeztu zirela, ondorengoak direlarik: I.V. eta D.L.; M.R.O; K.L.

Ikusirik 2012ko ekainaren 1ean goian aipaturiko hiru interesatuei, gonbidatu zitzaizela Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapenaren lehiaketan parte hartzeko, 7 egun zituztela Alkizako Udalean euren proposamenak aurkezteko, hau da ekainaren 11rarte.

Ikusirik 2012ko ekainaren 13an aurkezturiko hiru proposamenen B kartazala ireki zela, Kontratazio mahaiak dagokion baloraketa eginik Udalbatza honi esleipendun proposamena egin duelarik, hau da, I.V. eta D.L. jaunei Alkizako herri ostatuaren errentamendu eta ustiapen kontratua esleitzearena, proposamen hau egokiena izateagatik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-. I.V. eta D.L. jaunei Alkizako Herri Ostatuaren errentamendua eta ustiapena behin-behinekoz esleitzea.

BIGARRENGOA: I.V. eta D.L. jaunei jakinarazi Alkizako Udalean aurkeztu beharko dituztela, jakinarazpen hau jasotzen duen hurrengo egunetik hasita 7 eguneko epean ondorengo dokumentazioa:

- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Alkizako Udalarenak kitaturik dituela ziurtatzen duten dokumentuak.
- Baldintza-agiri honetan eskatutako gainerako dokumentu guztiak.
- Aseguru-poliza, baldintza-plegu honetan araututakoaren arabera.
- Behin betiko bermea osatua izanaren ziurtagiria.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri esleipen honetara aurkeztutako interesdun guztiei ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 13.15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.